


Erantzunik ez Saturnon

Hurrengo otsaila arte, ondoko argazkian ikus daitekeen fenomenoak ikustatzeko aukera izango dute. Hamabost urtetik behin gertatzen den prozesua dela medio, Saturnoren posizio erlatiboa aldatu egiten da gure begiekiko. Horrela, Saturnok bere



Hamabost urtetik behin, Saturnoren posizio erlatiboa aldatzen delako, Saturnok eraztunak banan-banan galtzen dituela dirudi.

eraztunak banan-banan galdu egiten dituela dirudi, azkenean "biluzik" azalduko da planeta. Hubble teleskopioa erabiliz behatu den prozesua lazko mailatzean hasi zen eta astronomoen iritziz, otsailaren 16an amaituko da. Egun horietan lan asko egin beharko dute astronomoek. Besteak beste, Saturnoko eraztuna osatzen duten materialak eta horien dinamikari buruzko datu asko

azter daitezke prozesuak dirauen bitartean eta akaso, satelite berriren bat aurki liteke eraztunek askatuko duten hautsan. Erne ibili beharko dute beraz, aukera hau galduz gero hamabost urte itxaron beharko baita Saturno berririo biluzik ikusteko.

Artizarra, inoiz baino ederrago

Ondoko argazkian ikus dezakezen irudikapen biribila Artizarrena da.

Zehaztasun osoz landutako lehen kartografia osatua duzue, urtetako lanaren eta lankidetzaren emaitza dena, bide-nabar.



EEBBetako Geologia Institutuan osatu dute irudikapen bikain hori eta bertan atzeman daitezke Artizarrenen bal-larak, mendiak eta sumendiak. Zehaztasun-maila hori lortu ahal

izateko, makina bat iturritara jo behar izan dute. Besteak beste, Magallanes zundak Igorritako irudiak, Puerto Ricoko Arecibon dagoen teleskopioaz behatutakoa eta Errusiako Venera espaziantzitik jasotako datuak erabili dituzte. Horien guztien konbinazioa duzue ondoko irudia, orain arte gure galaxiako planetari buruz inoiz egin izan den zehatzena.

Unibertsoaren azken mugetan

Unibertsoaren azken muturreraino gizakia ailegatzeak ametsa izaten segituko du tarte luze batean. Alabaina, bertaraino iristekotan zer aurkituko genukeen jakin dezakegu jadanik: ESO, European Southern Observatory erakundearen unibertsoaren azken mugetan ei dago-

Argazkian ikus daitekeen irudikapen biribila Artizarra da. Orain arte gure galaxiako planetari buruz inoiz egin izan den zehatzena da gainera.



European Southern Observatory erakundearen unibertsoaren azken mugetan ei dagoen galaxia aurkitu dute, irudian ikus dezakezuna.

en galaxia aurkitu dute, goiko irudian ikus dezakezuna. Zehatzago esanda, ESOko astronomoek argi-uhinak irudikatu dituzte, horietan salatzen baitute nonbait, bertan galaxia bat dagoela. Guk oraingoz ez dugu ikusterik izango, gugandik oso urrun baitago, 13 mila milioi argi-urtera, hain zuzen ere. Hori asko edo gutxi den jakin dezagun, gugandik gertuen dagoen galaxia 163.000 argi-urtera dagoela kontutan hartu beharra dago. Nahikoa urrun, beraz. Big Band delako teoria ontzat ematekotan, berriki atzeman duten galaxia hori unibertsoko zaharrena dela ere ondo-riozta genezake. Erabateko baieztapenik emateko datu gehiago eskuratu beharko bada ere, bidean aurrera goazela ukazina da.